

ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOAK UPV/EHU 2022an "JAKINTZA SORTZEKO PROIEKTUEN DEIALDIAN EMANDAKO LAGUNTZEI LOTUTAKO IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO APARTEKO DEIALDIA

Ebaluaziorako onartu eta baztertu diren eskaeren behin betiko zerrenda

Aurkeztutako eskaerak guztiak aztertu ondoren, errektoreordetzaren web atarian onartu eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu zen, ebaluazio-fasera pasatzeko, zuzenketa eskatzen zuten eskaeren xehetasunekin.

Zuzenketa egiteko epea amaitu ondoren, IAEk ERABAKI DU ebaluaziorako onartu eta baztertu diren eskaeren behin betiko zerrenda bere web-atarian argitaratzea.

Helegiteak

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua ezetsizat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 123. eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. Artikuluak).

Leioa, 2024ko otsailaren 20an.

SECCIÓN DE RECURSOS HUMANOS DE INVESTIGACIÓN
Vicerrectorado de Investigación